



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## Ordenanzas/Reglamentos Memoria

### Ordenantzak/Araudiak Txostena

1222/2017

ORG12I00G

Código de validación/*Balidazio kodea*  
6I4V5H0O3X2T367215BX



#### ORDENANZA/ORDENANTZA

Ordenanza reguladora de los criterios y procedimiento para la gestión de ayudas y subvenciones  
*Laguntzak eta diru-laguntzak kudeatzeko irizpideak eta prozedura arautzen duen ordenantza*

*Ermuko Udalak, Ongizate Estatuaren adierazgarri moduan, baliabide ugari zuzentzen du laguntza-izaerako jarduerak sustatzera, bai eta interes publikoko jarduera pribatuak suspertzera ere, Zuzenbide Estatu Sozial eta Demokratikoaren eskakizun denez, hiritarren partaidetza sendotzeko modu bat delako Sustapen-jarduera horrek, diru-laguntza publikoak emanez bideratua, hainbat jarduera-eremu ditu: etxebizitza, hezkuntza, kultura, immigrazioa, nazioarteko lankidetzak, gizarte-ekintza, kirola, ingurumena, enpresen arloa eta bere eskumenen eremuan bultzatu beharrekotzat dituen beste batzuk.d*

*Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra indarrean sartu aurretik Espainian diru-laguntzen inguruan zen legeria guztiz sakabanatua zegoen eta hutsuneak ugari ziren aspektu guztiz garrantzitsuetan.*

*Azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta bere erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretu bidez onetsia, onartu izana aurrerapauso handia izan zen diru-laguntzak bezalako gastu publiko motarik garrantzitsuenetako baten arau-esparru orokorra zehazteko.*

El Ayuntamiento de Ermua destina importantes recursos a la acción de fomento de actividades de carácter asistencial como manifestación del Estado de bienestar, de determinadas actividades privadas de interés público o como forma de fortalecer la participación ciudadana, una exigencia del Estado social y democrático de derecho. Esta acción de fomento que se canaliza, a través de la concesión de subvenciones públicas, tiene unos ámbitos de actuación muy diversos, tales como la vivienda, la educación, la cultura, inmigración, cooperación internacional, la acción social, el deporte, el medio ambiente, y las empresas u otras actividades que dentro de sus ámbitos competenciales considere conveniente promover.

Antes de la entrada en vigor de Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, la legislación española sobre subvenciones estaba tradicionalmente marcada por el signo de la dispersión y por la existencia de lagunas en aspectos muy relevantes.

La aprobación de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, y de su Reglamento aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, supuso un paso más en la determinación de un marco normativo general de una de las modalidades más importantes del gasto público como son las subvenciones.

*Arau-esparru honek diru-laguntzak emateko jardueraren oinarri izan behar duten printzipioak ezartzen ditu: berdintasuna, gardentasuna, objektibotasuna, publizitatea eta konkurrentzia, Administrazioak zehaztutako helburuak betetzean eta baliabideak banatu eta erabiltzean behar den eraginkortasuna hobetu beharrarekin batera, berori administrazio publikoen jarduera finantzarioaren zati garrantzitsua delako.*

*Ilido horretatik, ordenamenduaren alderdi horren aspektu garrantzitsu, orokor eta oinarritzkoak jasotzen ditu, toki-erakundeentzat utziz, bakoitzaren antolamenduaren esparruan, diru-laguntzen kudeaketa integral eta eraginkorragoa egiteko behar diren aspektuak egokitzea eta zehaztea.*

*Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrak eraginkortasuna hobetzeko ekarri zuen berrikuntzarik garrantzitsuenetakoa izan zen, administrazioak edo diru-laguntzak emateko eskumena duen edozein organok diru-laguntzak ezarri aurretik, aurreikusitako kostuak, helburuak, ondoreak eta finantzaketa-iturriak plan estrategiko batean zehaztu beharra, gaur Konstituzioan ezarritako aurrekontuen egonkortasunaren esparruan beti ere.*

*Auzitegi Gorenak, baliabide publikoak banatzean eta erabiltzean izan behar den eraginkortasunean oinarriturik, diru-laguntza arautu aurretik nahitaez bete beharreko lege-betekizuntzat jo du bere jurisprudentzia berrian diru-laguntzen plan estrategiko bat onetsi behar hori, zeina Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Legearen 7. artikuluan obligazio*

Este marco normativo contempla los principios generales que deben inspirar la actividad subvencional, la igualdad, la transparencia, objetividad, publicidad y concurrencia, así como la mejora de la eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados por la Administración y la eficiencia en la asignación y utilización de los recursos, como parte importante de la actividad financiera de las administraciones públicas.

En este sentido, contiene los aspectos nucleares, generales y fundamentales de este sector del ordenamiento, reservando para las entidades locales la adecuación y precisión de aquellos aspectos, que en el marco de su potestad de autoorganización, sean necesarios para una gestión integral y más eficaz de las subvenciones.

Una de las novedades más significativas que introdujo la Ley General de Subvenciones, en la línea de mejora de la eficacia, fue la obligación de que cualquier Administración u órgano competente en la concesión de subvenciones, concreten, con carácter previo a su establecimiento, en un plan estratégico, los costes previsibles, los objetivos, efectos y fuentes de financiación, en el marco de estabilidad presupuestaria, hoy consagrada constitucionalmente.

Esta obligación de aprobar un plan estratégico de subvenciones ha sido calificado por reciente jurisprudencia del Tribunal Supremo como un requisito legal esencial y previo a la regulación de la subvención, todo ello basado en un principio de eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos, configurado como una obligación para todo el sector público, artículo 7, de la Ley



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## Ordenanzas/Reglamentos Memoria

### Ordenantzak/Araudiak Txostena

1222/2017

ORG12I00G

Código de validación/Balidazio kodea  
6I4V5H0O3X2T367215BX



*moduan ezarria baitagoen sektore publiko osoarentzat.*

*Ordenantza honetan ezartzen dira Ermuko Udalean diru-laguntzak, zuzenean edota norgehiagoka-sistema bidez ematea izapidetzeko ildo nagusiak, eta berori beste aurrerapauso bat da diru-laguntzatarako gastu publikoaren emaitzak kontrolatu eta ebaluatzeko orduan, diruz lagundutako jarduera bete dadila bermatuz eta baliabideak banatzeko prozesuak hobetuz.*

*Ordenantza honen artikuluetan diru-laguntzatarako gastu publikoaren kudeaketa efizientzia eta eraginkortasunaren ikuspegitik emaitza onak lortzearekin lotzen da. Hala planteatzen baitzen Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean ere, bere zioen azalpenean oinarri oinarritzat jotzen baita helburuak kontrolatu eta ebaluatuko dituen jarraipen-sistema bat ezartzea, horrela, lortu nahi diren helburuak lortzen ez dituzten edo inbertitutako baliabideen mailari egokitzen ez zaizkien diru-laguntza ildoak aldatu edota eraginkorragoak diren beste batzuek ordezkatu ahal izateko eta/edo, behar denean, kendu*

*Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.2 artikulua ezartzen du toki-korporazioen diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak aurrekontuaren egikaritze-oinarrien esparruan onartu beharra dagoela, diru-laguntzen ordenantza orokor baten bitartez edota diru-laguntza mota ezberdinetarako berariaz eginiko ordenantzen bidez.*

*Ordenantza honek, beraz, bi helburu ditu: aipaturiko legearen agindua betetzea eta diru-laguntzen kudeaketa hobetzeko*

Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera.

Con esta Ordenanza se aprueban las directrices para la tramitación de la concesión de subvenciones en el Ayuntamiento de Ermua, ya sea de forma directa o en régimen de concurrencia competitiva que suponen un paso más en el control y evaluación de los resultados del gasto público destinado a subvenciones, garantizando el cumplimiento de la actividad subvencionada y mejorando los procesos de asignación de los recursos.

El articulado de la ordenanza vincula la gestión del gasto público subvencional a la obtención de resultados satisfactorios desde el punto de vista de la eficiencia y la eficacia, planteada ya en la Ley General de Subvenciones, cuya exposición de motivos considera “esencial” establecer “un sistema de seguimiento a través del control y evaluación de objetivos, que debe permitir que aquellas líneas de subvenciones que no alcancen el nivel de consecución de objetivos deseado o que resulte adecuado al nivel de recursos invertidos puedan ser modificadas o sustituidas por otras mas eficaces y , o, caso, eliminadas”.

El artículo 17.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, dispone que las bases reguladoras de las subvenciones de las corporaciones locales se deberán aprobar en el marco de las bases de ejecución del presupuesto, a través de una ordenanza general de subvenciones o mediante una ordenanza específica para las distintas modalidades de subvenciones.

Esta Ordenanza por tanto tiene una doble finalidad, al cumplimiento del citado mandato legal, se une la necesidad de

*ahaleginean aurrera egitea, helburuen lorpenean eraginkortasuna ziurtatuz eta baliabide publikoak banatzean efizientzia bermatuz, diru-laguntzak emateko oinarri-oinarrizkoak.*

*Printzipio orokorrak eta Ermuko Udalaren diru-laguntzak emateko prozedura ezartzen dira diru-laguntzen kudeaketaren eremu ezberdinetan aplikatzeko erreferentzia legez, arau guztiak erabat sinplifikatuz eta eremu horretako irizpide eta prozedura oro bateratuz, gizarte larrialdiko gaitan eta gizarteratzeko udal laguntzen kasuan izan ezik, berariazko arauetzuzuzenduak baitaude azken horiek.*

*Horren adierazle da deialdi bakar bat egiten dela Udaletxeko diru-laguntza guztientzat.*

*Arau-esparru hau Diru-laguntzen Plan Estrategikoarekin osatuko da, zeinak bere aplikazioarekin lortu nahi diren helburuak eta ondoreak, horiek lortzeko epea, aurreikusitako kostuak eta bere finantzaketa-iturriak zehaztu beharko baitituen, betiereko baldintza aurrekontu-egonkortasunaren helburua betetzea izanik.*

*Azkenik, Udalbatzarrak onetsi eta BAO on argitaratutako diru-laguntza ildo ezberdinak arautzen dituzten oinarriak onartzearekin amaituko da, zeinak aldatu ezean indarrean jarraituko duten, berriz ere onetsi beharrik gabe.*

*Ordenantza hau honela egituratzen da: bederatzi kapitulu ditu, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat*

avanzar para mejorar la gestión, garantizando así, la eficacia en el cumplimiento de objetivos y la eficiencia en la asignación de los recursos públicos, principios básicos en la concesión de subvenciones.

Se establecen los principios generales y el procedimiento para la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Ermua, como referente de aplicación directa en los diversos ámbitos de gestión de subvenciones, al objeto de proceder a una rigurosa simplificación normativa y unificar criterios y procedimientos en este ámbito, salvo en materia de emergencia social y ayudas económicas municipales de inserción, que se rigen por su normativa específica.

Prueba de ello es que establece una única convocatoria para todas las subvenciones del Ayuntamiento.

Este marco normativo se complementa con la aprobación del Plan Estratégico de Subvenciones, que deberá de concretar los objetivos y los efectos que se pretendan con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación supeditándose en todo caso al cumplimiento del objetivo de estabilidad presupuestaria.

Y termina con la aprobación de las Bases Reguladoras de las distintas líneas de subvención aprobadas por el Pleno del Ayuntamiento y publicadas en el BOB, permaneciendo vigentes en cuanto no se modifiquen, sin necesidad de nueva aprobación.

La presente Ordenanza se estructura en nueve capítulos, una Disposiciones transitorias, una Disposición derogatoria y



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## Ordenanzas/Reglamentos Memoria

### Ordenantzak/Araudiak Txostena

1222/2017

ORG12I00G

Código de validación/Balidazio kodea  
6I4V5H0O3X2T367215BX



*eta azken xedapena.*

**I kapituluak** helburuari dagozkion xedapen orokorrak ezartzen ditu: Printzipio orokorrak. Kontzeptua. Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak. Diru-laguntzak eman aurretiko betebeharrak. Deialdia egiteko eta laguntza emateko eskumena duten organoak. Onuradunak. Onuradun izateko baldintzak. Onuradunen betebeharrak. Diru-laguntzen Plan Estrategikoa eta Diru-laguntzak arautzen dituzten Oinarriak. Diru-laguntzei publikitatea ematea. Irizpide Orokorrak. Diruz lagundutako jardueren finantzaketa.

**II. kapituluak** ondokoak jasotzen ditu: Norgehiagokako laguntzak edo diru-laguntzak kudeatzeko prozedura. Datuak Babesteko Lege Organikoa betetzea. Hasiera. Eskabideen aurkezpena. Prozeduraren instrukzioa. Dokumentazioa eskatzea. Balorazio-txostena. Toki Gobernu Batzordeari ebazpena proposatzea. Emakida-dekretua. Ebazpena jakinaraztea. Talde politikoei informazioa ematea. Ebazpena emateko epea. Emandako diru-laguntzen argitalpena. Gastuak justifikatzea. Frogagiriak entregatzea. Banan banako ebaluazio-txostena.

**III. kapituluak** ondokoak biltzen dira: laguntza edo diru-laguntza izendunak edota zuzenean ematekoak kudeatzeko prozedura. Zuzenean ematea. Lankidetzak hitzarmenak. Lankidetzak hitzarmenei publikitate ematea. Subsidiarioki aplikatu beharreko araudia.

**IV. kapituluak** honakoak: Aurrekontua kudeatzeko prozedura. Gastua eta ordainketak onestea. Diru-laguntzak kontu-hartzaileari jakitera ematea. Diru-laguntza ordaintzea. Laguntza eta diru-

una Disposición final.

El **capítulo I** establece las disposiciones generales relativas al objeto. Principios generales. Concepto. Actividades y objeto de ayudas. Requisitos para el otorgamiento. Órganos competentes para la convocatoria y concesión. Personas beneficiarias. Requisitos para obtener la condición de beneficiario. Obligaciones de los beneficiarios. Plan Estratégico de Subvenciones y Bases Reguladoras de las Subvenciones. Publicidad de las subvenciones. Criterios generales. Financiación de las actividades subvencionadas.,

En el **capítulo II** Procedimiento para la gestión de ayudas o subvenciones mediante concurrencia competitiva. Procedimiento. Cumplimiento de la LOPD. Inicio. Presentación de solicitudes. Instrucción del procedimiento. Requerimiento de documentación. Informe de valoración. Propuesta de resolución a la JGL. Decreto reconcesión. Notificación de resolución. Información a grupos políticos. Plazo de resolución. Publicación de las subvenciones. Justificación. Entrega de documentación justificativa, Informe de evaluación individual.

En el **capítulo III**, Procedimiento para la gestión de ayudas o subvenciones nominativas o de concesión directa. Concesión directa. Convenios de Colaboración. Publicidad de los Convenios de Colaboración. Normativa de aplicación subsidiaria.

El **capítulo IV**. Procedimiento de gestión presupuestaria. Aprobación del gasto y pago. Comunicación de la concesión a intervención. Pago de la subvención. Fiscalización de las ayudas y

*laguntzen fiskalizazioa.*

**V. kapituluak** diru-itzulketak egiteko erregimena, horretarako arrazoiak eta prozedura arautzen ditu,

**VI. kapituluak** ondokoak jasotzen dira: Arau-haustea eta dagozkien zehapenak. Arau-hauste arinak, larriak eta oso larriak. Zehapen-motak eta zehapenen erregimena. Zehapen arin, larri eta oso larrien zenbatekoak. Preskripzioak eta Zehapen-prozedura.

**VII. kapituluak** Deontogologia-kodea aurkezten du.

Ordenantza hau Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.4.a) atalean Udalari arauak emateko esleitzen zaion ahalmenaz baliatuz eman da.

subvenciones.

El **capítulo V.** Regula el régimen de los reintegros. Causas de reintegro. Procedimiento de reintegro.

El **capítulo VI.** Infracciones y sanciones respectivamente. Infracciones leves, graves y muy graves. Clases de sanciones y régimen sancionador. Importe de sanciones leves, graves y muy graves. Prescripciones y Procedimiento sancionador.

**Capítulo VII.-** Código Deontológico.

Esta Ordenanza se dicta en el ejercicio de la potestad normativa que tiene atribuida el Ayuntamiento en el 4.1.a) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.